



EGOERA EKONOMIKO KALTEBERAN DAUDEN VISESAREN BABESTUTAKO ETXEBIZITZA BATEAN ALOKAIRU EROSKETA AUKERAREKIN MODUAN ERRENTARIAK DIRENEK ALOKAIRUA ORDAINTZETIK EZOHICO ETA ALDI BATERAKO SALBUESPENA IZATEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

1. ADIERAZPEN-EGILEAREN IDENTIFIKAZIOA

Adierazpen-egilea VISESAREN etxebizitzaren alokairu erosketara aukera errentamendu-kontratu baten titularra izan behar da, norberaren izenean edo errentakide gisa, izan behar da eta egoera ekonomiko kalteberan egon behar da.

Identifikazio Identifikazio-zenbakia (NAN/AIZ/Pasaporte/Beste bat): _____

Izena: _____

Lehen abizena: _____

Bigarren abizena: _____

Honako hau naiz (aukeratu dagokiona):

- Besteren konturako langilea
- Langile autonomoa edo enpresaburua

2. BESTEREN KONTURAKO LANGILEENTZAKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Besteren konturako langilea naizen aldetik, honako hau **ADIERAZTEN DUT**:

- Langabezia-egoera osasun-larrialdiak eragindako krisiaren ondorioz gertatu da, eta, kasu guztietan, COVID-19 birusarekin lotuta dago. Beraz, honako kasu hauetako bat, gutxienez, gerta daiteke: kontratua iraungitzea epea amaitzeagatik eta aldi baterako kontratuak ez berritzea; aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batean edo beste enplegu-espediente batzuetan jasotako kontratu-eteteak, ezinbesteko kausengatik edo arrazoi ekonomiko, tekniko, antolamenduko eta ekoizpenekoengatik.
- Etxebizitzaren errentamenduagatik ordaindu behar den errentaren zenbatekoa gehi komunitate-gastuak **kontratuaren titularren/titularren** egungo diru-sarreraren % 30 baino handiagoa da, babes ofizialeko etxebizitzari buruzko araudiaren arabera kalkulatuta

3. LANGILE AUTONOMO EDO ENPRESABURUENTZAKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Langile autonomoa edo enpresaburua naizen aldetik, honako hau **ADIERAZTEN DUT**:

- Jarduera ekonomikoaren zergan alta emanda nago, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren arabera jendearentzako irekiera etenda geratu zen jardueren zerrendan sartutako sektorearen batean.
- Nire diru-sarreretan galera izan dut edo salmentetan beherakada, % 40koa edo handiagoa, 2020ko apirilera eta maiatzera diru-sarrerak edo salmentak erreferentziatzen hartuta, alarma-egoera deklaratu aurreko sei hilera naturalean egindako batez bestekoarekin alderatuta.
- Etxebizitzaren errentamenduagatik edo zuzkidura-bizitokiaren emakidagatik ordaindu behar den errentaren zenbatekoa gehi komunitate-gastuak **kontratuaren titularren/titularren** egungo diru-sarreraren % 30 baino handiagoa da, babes ofizialeko etxebizitzari buruzko araudiaren arabera kalkulatuta.



4. VISESAK ETA ADMINISTRAZIOAK EGIAZTATZEA

- Ez nago ados VISESAk eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak administrazio publiko eskudunei eskatzearekin Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren aginduaren 7. artikuluan adierazitako datuak. Agindu horren bidez, alokairu-erregimeneko etxebizitza babestuen arloan COVID-19 birusaren inpaktu ekonomikoari erantzuna emateko hartu beharreko neurriak arautzen dira.

Ohar garrantzitsua: Lauki hau markatuz gero, VISESAk eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Administrazio publiko eskudunei eskaera ebasko beharrezkoak diren datuak eskatzearen aurka zaudela joko da. Kasu horretan, **zuk aurkeztu beharko dituzu baldintzak betetzen dituzula egiaztatzen duten agiriak.**

5. DATUAK BABESTEARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Eskabidean jasotako datu pertsonalak tratatu egingo ditugu eta honako tratamendu-jarduera honetan sartuko: "Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren dirulaguntzak, etxebizitza eta lurralde arlokoak".

- **Erantzunkideak:** alde batetik, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA (IFK: A20306775), helbidea Gamarrako Atariko 1A zenbakiko 2. solairuan duena (PK: 01013), Gasteizen (Araba), eta honako helbide elektronikoa duena: dpo@visesa.eus; bestetik, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza.
- **Xedea:** Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren laguntzak eta dirulaguntzak kudeatzea: etxebizitza erosteko finantza-neurriak, etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriak, babes publikoko etxebizitzak sustatzeko laguntzak, alokairua sustatzeko neurriak, lurzorua urbanizatzekeo finantza-neurriak, lurzorua kostu bidez eskuratzeko finantza-neurriak, Gaztelagun programa eta zuzeneko diru-laguntzak.
- **Legitimazioa:** Tratamendua beharrezkoa da erantzunkideei aplikatu beharreko lege-betebeharrak betetzeko. Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- **Datuak gordetzeko epea:** zure datu pertsonalak gordeko ditugu alokairu-errentak ordaintzetik salbuesteko espedientea kudeatzen dugun bitartean eta espedientea indarrean dagoen bitartean eta, ondoren, tratamenduaren erantzuleei aplikatu dakizkiekeen lege-betebeharrak betetzeko behar den epean.
- **Hartzaileak:** Ez da daturik lagako, legeak kontrakoa agintzen duenean izan ezik; horrek ez du eragotziko erantzunkideen artean aipatutako helburuetarako beharrezkoak diren datuak lagatzea.
- **Eskubideak:** Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita datuok mugatzeko edo horien tratamenduaren aurka egiteko eskubidea ere. Eusko Jaurjaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren kasuan, tratamenduaren erantzunkidea, informazio gehigarrian azaltzen den bezala. VISESAren kasuan, "Erantzunkideak" atalean adierazitako helbide eta bitartekoen bidez. Kontrol-agintaritza eskudunaren aurrean erreklamazio bat aurkez dezakezu. VISESAren kasuan, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoa da, eta Sailaren kasuan, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.
- **Informazio osagarria:** Datuen babesari buruzko informazio gehiago jaso nahi baduzu, jo ezazu webgune honetara: <https://www.euskadi.eus/proteccion-de-datos-y-politica-de-seguridad/web01-sede/es/>

[Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra](#) betez.

[Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoa](#) betez.



6. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN

Nire erantzukizunpean, honako adierazpen hauen edukia egiazkoa dela **ADIERAZTEN DUT**:

- Ez dut dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzea eragozten didan zigor penalik edo administratiborik jaso.
- Ez dut dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko ezgaitzen nauen legezko debekurik, sexu-bereizkeriagatik gertatutakoak berariaz aipatuta.
- Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen arabera formalizatutako etxebizitzaren errentamendu-kontratu baten titularra naiz, norberaren izenean edo errentakide gisa, edo zuzkidura-bizitoki baten emakidaren onuraduna naiz.
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen ditut
- Bidegabe kobratutako zenbatekoak itzultzeko konpromisoa hartzen dut, hala ebatziz gero..
- Laguntza aitortu didan organo eskudunari berehala jakinaraziko diot aitorten hori eragin zuten baldintza edo betekizunen edozein aldaketa, gerora laguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekar dezakeena.
- Indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzen ditut.

7. BATERAGARRITASUN-ADIERAZPENAK

ADIERAZTEN DUT, nire erantzukizunpean, ez dudala Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren AGINDUAN araututako laguntzak jasotzeko pareko eskabiderik egin. Agindu horren bidez, alokairu-erregimeneko etxebizitza babestuen arloan COVID-19 birusaren inpaktu ekonomikoari erantzuna emateko hartu beharreko neurriak arautzen dira.

ADIERAZTEN DUT, nire erantzukizunpean, egiazkoak eta osoak direla erantzukizunpeko adierazpen honetako datu guztiak, eta nire gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioen bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo VISESAK edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

VISESAK edo Administrazioak prozedurarekin ez jarraitzea erabaki dezake, erantzukizunpeko adierazpenen datuetan edozein zehaztasun falta, faltsukeria edo omisio –funtsezkoa – gertatuz gero, bestelako erantzukizun penal, zibil edo administratiboak alde batera utzi gabe.

2020ko _____ aren _____ a

Adierazpen-egilearen sinadura